

Casares-enetan ideiak harturik. Ahaidetasun sailaren exenploak jartzen ditu. Hiztegi analogiko honek idazleei lagunduko die, eta geroago batean Hiztegi nagusia egiteko ere lagungarri izanen da. Lan hau, ikastola hiztegiak egiten ari diranen esku proposatzen du, Donostiako ordezkartzako bulegoaren pean. Lan orokorraren funtsari buruz mintzatzen da eta datorren batzarrerako, esenplu gisa, hamarren bat hitz-buru landuak ekartzekotan gelditu da.

e) *LEGE- GIZONEK BEHAR DUTEN HIZTEGIÑOAZ:*

Euskaltzainburuak irakurridu horri buruzko txostentxo bat. Gipuzkoako lege gizonen kolegioari laguntzeko izango da eta "Derecho de Familia" sailekoa, beharbada Euskaltzaindiak beste eremu batzuetara eramaten badu ere. Lana behar bezala atontzeko, batzordeen organigrama jarraituaz, batzorde hau izendatzen da: eragile ataleko: Mitxelena buru, Arrue, Haritschelhar, eta Lizundia, idazkari; kontseilari edo lankide atalerako: Lojendio, Oleaga, Santamaria, Caro Baroja, Itçaina, G. Monreal, A. Muniategi eta P. Zabaleta.

f) *BAKOITZAK DAKARRENETIK:*

"Larreko" zenaren omenaldi eta oroit-harriari buruz mintzatu da. Antolakizun hoiei buruz Auritzeko kontzejura idaztea, eta bertarako hitzaldiak gertatzea. Pablo Fermin Irigaray Goizueta "Larreko" (1869-1949) euskal idazle euskaltzain eta midikuaren bizitza, idazletza eta bere garaiko giroa adieraziko dituzten hiru hitzaldi laburrak gertatzea; gizona hurbildik eta adiskidetasunez ezagutzen zutenen artetik hiru hauek hautatu dira: Erkiaga, Labayen eta Lafitte jaun euskaltzainak, hitzaldi hauek gerta lezazkenak. Hirurei aditzera ematea erabakitzen da. Auritzeko Aiuntamendura idaztea eta bertakoekin har-emanetan jarri eta antolakizun xehetasunak gertatzea, idazkari-ordearen eta Jose Irigaray, "Larreko"ren ilobaren esku gelditzen da.

Euskaltzainburua
LUIS VILLASANTE

Idazkaria
JUAN SAN MARTIN

1972 - VI - 30

Donostian, Gipuzkoako Diputazioan, 1972 ekainaren 30ean, arratsaldeko lauretan. Bildu dira: Villasante buru, Haritschelhar buruordezko, Arrue, Irigaray, Irigoyen, Lafitte eta Zabala euskaltzain jaunak; Aresti, Arregi (Frantziska), Enbeita, Etxaburu, Garmendia (Jon), Garmendia (Sabador), Intxausti, Kintana, Lizundia, Sarasola eta Zatarain laguntzaile jaunak, San Martin idazkari dala.

Dassance, Diharce, Epherre, Larzabal eta Mitxelena jaunak ezin etorria adierazi dute.

Ohi den otoitzarekin hasi da biltzarra.

Maiatzeko agiria onhartu da.

a) *HAR-EMANAK:*

P. F. Irigaray "Larreko"ren gorasarreari buruz Auritzen eman diren urratsen berri ematen du Lizundiak. Ondoren bertarako programa hornitu da: Irailaren 10ean izango da gorasarre hau; 11etan Meza konzelebratua, 12etan "Mutzikoak" dantza, eta oroit-harria agerian jarri, 12,30ean Bilkura idekia: Alkatearen agurra, Euskaltzainburuaren agurra, eta hiru hitzaldi labur, "Larreko"ren garaiko giroa, P. Lafittek "Larreko" euskal idazle, E. Erkiagak "Larreko" gizona dutelarik gaitzat.

Euskaltzainburuak, aditz batuaren batzordekoen bilerak uztailaren azken astean egitea eskatzen du, eta hala erabaki da. Tokia Arantzazu hautatu da eta bilera egunak 27, 28 eta 29. Eta, 28an, goizeko hamaiketan Euskaltzaindiaren hileroko batzarra han bertan egitea erabaki da.

Euskaltzainburu-ordeak, aditzera ematen du, Ustaritzen estudiante amerikanoak ari direla euskaraz ikasten eta gaur goizean bertan agurtu dituela. Irakasleen artean Mitxelena, J. Basterretxea eta Y. Oñatibia euskaltzaindikoak direla.

D. Peillenen gutuna, "Chiveroua eta Marcelina" asto-lasterra edo irri-pastorala eta "Recueil Vétérinaire" pastorala Parisko Biblioteka Nationaletik kopiatu zituela eta honerat bidali, baina ez direla inon argitaratzen. Baina, Haritschelhar jaunak dionez orain dute inprimerian "Recueil Vétérinaire" Bulletin du Musée Basque-n aurki argitaratzeko. Bestea, oraingoz, kopia bat Euskaltzaindiko artxiboan gelditzen da.

Bizkaian anitz kolegio eta eskola direla euskaraz ere erakusten dutenak, legeak zernahitarako libre uzten dizkien orduetan, eta beren lan txalogarriagatik eskerrak ematea erabakitzen da. Bilboko "Euskerazaleak" elkarteak egin du eskola guziona lista.

HARTU DIREN LIBURUAK:

Etor argitaldaria emanak: Gorka Trintxerperen *Zorion baten zatnak* eta Mikel Lasaren *Novela berria Hego Amerikan*. Beren lanen separatak, G. Arestik "Flexiones verbales empleadas por Pedro de Axular en su obra *Gero*", *Fontes*, eta J. Haritschelharrek "Una propriété souletine vers le milieu du XIXe siècle *ETCHAHUNIA*", B. Musée Basque.

b) *ALFABETATZE ARAUDIAZ:*

Maiatzeko batzarrean irakurri zen araudiari egin zaizkon ikutu edo zuzenketen berri eman du Irigaray jaunak, eta era berean araudiaren bete beharra adierazi. Onhartua gelditzen da.

Batzordea berritzen da: Gidari saileko, buru A. Irigaray, eta batzar-kide, B. Arregi, S. Basauri, P. Charritton, E. Erkiaga, K. Etxenagusia, J. Intxausti, X. Kintana, J. Oregi; eta bulego saileko, J. L. Lizundia Bizkairako, M. Ruiz Urrestarazu Arabarako eta S. Garmendia Gipuzkoarako.

d) **8 URTERARTEKO ESKOLA HIZTEGIA ONARTZEAZ (3 zati):**

Salbador Garmendiak irakurri du txosten bat, lan hau beregain eramanean duen batzordearen izenean, lana zer eta nola eramanean duten zehatz mehatz argitasunak emanez, lehen zerrenda bat kontseilarien artean banandurik eta gero hauen erantzunak haintzat harturik beharrezko zuzenketak eginaz, eta erabakiok hartzeko zer aburu jarraitu duten.

Ondotik, Villasantek egin ditu hitz batzuk, lana burutu dutenei eta lankide guzietan eskerrak emanez eta eskolak duten hiztegi premia agerrezaz. Ez dala hitzok banan bana berriz aztertzerik, horien kriterioa ikusiaz, eta oraingoz, experimental eran utzi, denborarekin beharko diren zuzenketak ikusteko.

Listak zabaldu dira batzarkideen artean eta etorri ez diren euskaltzaineri korreoz bialtzea erabaki, eta urrengo batzarrean erabakin hartzeko uzten da.

e) **DENDA IZENDEGIAZ:**

Kintanak agertzen du, behar bezala egiteko denborarik izan ez duenez, urrengerako utzi beharko dala.

f) **IRIGOYEN JAUNAREN TXOSTENA:**

"*Jakin*" hitza ohiturazko zentzunez zelan erabiltzen den. A. Tovar-en "Miscelánea vasca" (FLV, 1971, p. 5-10) lana dakar gogora, Hego Amerikako gaztelera erabiltzen duten *saber*, "soler" bezala, griego eta latinetikako sustraiak dituela dio Tovar-ek, eta Irigoyenek gogoratzen digu euskeran ere *badáki* erabiltzen dela era berean, Bizkaiko euskalkietan. Zenbait batzarkidek diotenez, baita Gipuzkoan bertan ere. Adierazpenak ematen dira.

Eta, historian zehar *-ren* atzizkiak hartu dituen diferentziak agertzen ditu. Agirik zaharretan (Leire, 1110) *-re*; eta (Orreaga, 12894) *-ren*, eta geroztiko zenbait esanplu, maiz *-(r)en*, eta antzerakoak, *-ren*, *-rean*, *en*, *-an*, eta abar, bakoitzaren iturriak emanez.

h) **XENPELAR BERTSO PAPEREN OINARRIAK ONARTZEAZ:**

"Xenpelar" sarirako diru laguntza lortu da Donostiako Centro de Atracción y Turismo-tik. Bertsolari legeetan nonahi argitaratzen diren bertso sailentzat. Lehen saria 12.000 pezetakoa, bigarrena 8.000 eta hirugarrena 5.000.

Lehen, sari hau, "Lizardi" poema sariarekin batean eramaten zen, baina beste sariketa batzuetan diru gehiago ematen delako edo, hona ez da lanik etortzen.

Bai "Xenpelar" eta bai "Lizardi" sariak Gipuzkoako Caja de Ahorros Provincial-aren diruz egin izan dira orain arte, eta orain C. A. T.-k gehiago ematen duenez, Zabala jauna gelditu da Caja de Ahorros-ko J. Abad jaunarekin mintzatzekotan, sariketa hauei buruz.

i) *BERTSOLARI TXAPELKETAREN ERATZE ARAUDIAZ:*

Agintarien aldetik dauden eragozpenak azaltzen dira. Bizkaiko gobernadoreak bertsolari saio guziak debekatzen ditu nonbait, eta Gipuzkoan ez diote uzten Lopategi eta Azpillagari plazetara irtetzen. Egoera honetan, ez da hain erraza txapelketarik antolatzea, eta antolakizunok aurrera eraman baino lehen bertsolariekin mintzatu beharra agertzen da. Gainera, araudia ere berekin har-emanean egin beharra danez gero, Zabala jaunaren esku uzten da bertsolariekin hitz egitea.

j) *BAKOITZAK DAKARRENETIK:*

Haritschelhar jaunak dio, udara honetan, Bordeleko Unibersitateak eginen duela XIX.mendearen lehen parteko Euskal Herriaren estudioa, eta ahal dela, Euskaltzaindiko batzuk parte hartzen dutenez, Euskaltzaindiaren babesa eman. Ontzat hartu da.

Euskaltzainburua
LUIS VILLASANTE

Idazkaria
JUAN SAN MARTIN

1972 - VII - 28

Arantzazun, 1972ko Uztailaren 28an, arratsaldeko hiru t'erdietan, bildu dira: Villasante buru, Haritschelhar buru-ordeko, Diharce, Irigoyen, Mitxelena, Satrustegi euskaltzainak; Altuna, Aresti, Berriatua, Intxausti, Kintana eta Oregi euskaltzain laguntzaile, euskal aditz batua-
ren batzordeko direnez eta San Martin idazkari eta Lizundia idazkari-
ordezko direlarik. Arrue, Dassance, Eppherre, Erkiaga, A. Intza, Irigaray, Lafitte, Larzabal eta Lojendio jaunek ezin etorria adierazi dute, baita Akesolo batzordekoak ere.

Bilera hau alde z aurretik axola handikotzat hartua zen eta hala jakinerazi zien euskaltzain oso guztiei lehendakariak Uztailaren 17-an egindako deian.

Lojendio jaunak bidalitako iritzi eta oharrak irakurri dira. Irigaray jaunarena ere bai.

Mitxelena jaunak, aditz batzordeko buru bezala adierazten du zer eta nola eraman diren aditz batuaren lanak. Ondorean, aditz batzordekoak aurkeztu duten lana orriz orri forma bakoitza banan bana aztertu da.

Bigarren batzarrerako utzi da azken orraztapena eta onartze gorabehera bigarren batzarreko deiarri jarraituz eta Arautegiaren 25. artikulua-
ren arabera.

Euskaltzainburua
LUIS VILLASANTE

Idazkaria
JUAN SAN MARTIN